

EUSKARAREN ERABILERA

NORMALTZEKO

UDAL-ORDENANTZA

1.991. urtea

EUSKARAREN ERABILERA NORMALTZEKO UDAL-ORDENANTZA

AURKIBIDEA.....	or.
SARRERA	3
I.APLIKAZIO ESPARRUA	3
II.HIZKUNTZAREN ERABILPEN OROKORRA	3
III.BARNE ERABILPENA.....	4
IV.ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK	5
V.ADMINISTRATUEKIKO HARREMANAK	6
VI.OHAR ARGITALPEN ETA IHARDUERA PUBLIKOAK	6
VII.ERREGISTROAK.....	7
VIII.PERTSONALAREN BIRZIKLAIA	7
IX.PERTSONAL BERRIAREN HAUTESPENA.....	10
X.EUSKARAREN ERABILERA UDALERRIAN.....	10
XI.EUSKARAREN MODERNIZAZIO, BATASUNA ETA NORMALKUNTZARAKO AZPIEGITURA.....	16
XEDAPEN GEHIGARRIAK	17
XEDAPEN DEROGATZAILEA	17
AZKEN XEDAPENA	18



PASAIAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALTZEKO UDAL ORDENANTZA

SARRERA

1.art. Euskara da Euskal Herriko Nazio-hizkuntza eta era berean Pasaiako Udal eta Udalerriko hizkuntza.

I. APLIKAZIO ESPARRUA

2.art. Aplikazio orokorra izan dezaten eman diren eta indarrean dauden lege nahiz arauen eta ordenantza honetako xedapenen arabera erabiliko du euskara Pasaiako Udalak eta Udal erakundeek, nahiz bere barnefuntzionamenduan nahiz herritarrekiko hala organismo eta erakunde guztiekiko harremanetan, azken helburua euskararen erabileraren normalizazioa delarik.

II. HIZKUNTZAREN ERABILPEN OROKORRA

3.art. Euskara eta gaztelania ofizialak badira ere, hainbat eta hainbat urtetan euskarak jasan duen zokoratze prozesuaren ondorioz, berdintasun soziala lortzeko xedez, lehentasunezko tratamendu berezitua emango dio Pasaiako Udalak euskarari.

4.art. Euskal Herriko herritar guztiak dute bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea, nola hitzez ala idatziz. Ondorioz, Pasaiako Udalak honako hizkuntz eskubideak aitortzen dizkie espreski herritarrei:

a) Udalarekin eta bere menpeko organismo guztiekin ahozko edota idatzizko harremana euskaraz izateko eskubidea.

b) Udalak antolatu, gestionatu edo lagunduriko ikastaro guztiak euskarazko ereduetan egiteko eskubide zinezkoa.

c) Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabideetan jakitera ematen dituen berri eta xedapen oro, euskaraz hartzeko eskubidea.

d) Udaleko edozein bileratan euskaraz iharduteko eskubidea.

III. BARNE ERABILPENA

5.art. Bost urtetako epealdian edo plangintzaldian hizkuntza eskakizuna derrigorrez bete beharko duten langileen arteko idatziak euskaraz egingo dira. Plangintzaldiaren amaieran berriro aztertuko da artikulua hau, plangintzaldi berrirako izendatu diren hizkuntza eskakizunen kopuruaren arabera euskararen erabilpena gehitzera joko delarik.

6.art. Udaleko organo desberdinak erabilitako barne inprimaki guztiak bi hizkuntzatan idatziko dira, euskarari lehentasuna emanez, eta ahal den guztietan euskaraz.

7.art. Paperen idazpuruak, gomazko zigiluak, tinbre zigilatuak eta antzeko beste inprimakiak hizkuntza bietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez eta ahal den guztietan euskaraz.

8.art. Bulego eta lan geletako errotuluak eta gainerako mota bereko adierazleak:

a) Euskaraz idatziko dira:

- 1- Euskaraz eta gaztelaniaz antzeko moduz idazten diren hitzak eta esaldiak: ARKITEKTUA. ERREGISTROA...
- 2- Erabilera zabala eta orokorra duten hitzak eta esaldiak: PASAIKO UDALA...
- 3- Bere esanahi osoa piktograma bidez adieraz daitezkeen kasu guztietan: IRTEERA, POSTA...

b) Gainerako testuak euskaraz edo elebitan idatziko dira. bigarren kasuan beti euskarazko testuari lehentasuna emanez: tokiz, euskarazkoa gaztelaniazko testuaren gainean edo ezkerretara jarritz eta, handieraz euskarazkoen letren neurria bi aldiz handiagoa izanik (bai luzeraz, bai zabaleraz zein lodieraz).

c) Testuaren osaketa Udaletxeko euskara zerbitzuak erabakiko du.

9.art. Idazmakinak, ordenagailuak, berauen inprimagailu eta programak, eta Pasaiako Udaletxean erabiltzeko eskuratutako materialeak euskaraz funtzionatzeko egokitua izan dadin saiaturiko da Udala.

10.art. Pasaiako Udalak, Euskal Herriko esparruan, hirugarren batzuei enkargatutako azterketa, proiektu eta antzeko lanak, bi hizkuntzatan, euskarari lehentasuna emanaz ala euskaraz, entregatzea eskatuko die Udalak.

11.art. Erabaki organoetako aktak bi hizkuntzetan jasoko dira eta batzorde informatiboetako aktak, berriz, bilkuran erabiltzen den hizkuntzan.
Aktatzat ulertuko da tratatu den gaiaren laburpena, parte hartu duten pertsonak, bozketen emaitzak eta harturiko akordioa jasotzen dituenak.
Zinegotzien interbentzioetan, hauek erabiltzen duten hizkuntza errespetatuko da aktan konstatatzerakoan.

12.art. Udaleko organo guztiak dute -informatiboak nahiz exekutiboak- beren ohizko lan-hizkuntzatzat euskara aukeratzeko eskubidea.
Erabaki hori hartzen duten organoen bilerak sistematikoki euskaraz egingo dira, eta euskara ez dakiten partaideentzat, ahalbideen arabera, aldibereko itzulpen zerbitzua emango da. Era berean, organo horien aktak, gutunak, jakinerazpenak eta agiriak oro euskaraz idatziko dira, beharrezko den kasuetan gaztelarrera itzultzearen kalterik gabe.

IV .ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

13.art. Pasaiako Udalak, beste Administrazio Publikoetako nahiz erakunde ofizialei zuzendutako dokumentazioa, berauek Euskal Herriko lurralde esparruaren barruan daudenean, euskaraz idatziko du. Harare, interesatuen esku jarri ahal izango da, horrela eskatzen dutenean, elebitan idatzirikoko dokumentazioaren kopia.

14.art. Euskara ofiziala den eremuko erakunde ofizialei nahiz Administrazio Publikoetatik jasotzen den dokumentazioa euskaraz ez balego, itzuli egingo da jatorrizko tokira, atzera berriz euskaraz idatzita bidali dezaten eskatuz.

V. ADMINISTRATUEKIKO HARREMANAK

15.art. Udalerriko esparruan nahiz Euskal Herrikoan kokatutako pertsona fisiko nahiz Juridikoei zuzendutako komunikazio eta jakinerazpenak elebitan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez. Herritar edo pertsona fisiko edo juridiko batek euskara hutsezkoa eskatuko balu, hala zuzendu beharko litzaioke.

16.art. Udal Administrazioak euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzen zaizkion pertsona fisikoen komunikazioak onartuko ditu, baita, hala dagokionean, berriemailearen lurraldeko beste hizkuntza ofizialean eginikoak ere.

17.art. Eraginak Euskal Herri barnean eta Euskal Herritik kanpoan dituzten dokumentuak eta inprimakiak hizkuntza bietan idatziko dira, euskarari lehentasuna emanez.

18.art. Funtzionari nahiz udal-enplegatuak normalki euskaraz zuzenduko zaizkie herritarrei beren ahozko harreman ofizialetan. Hala ere jarraian herritarren hizkuntz aukera librean errespetatuko dute.

19.art. Pasaiako Udalak sinatzen dituen kontratuak euskaraz idatziak izango dira, kontratuan eskuhartzen duen beste alderdiak hala eskatuko balu, euskaraz eta gaztelaniaz idatziak izango liratekeelarik.

Bestalde, kontratugintza alorrean, kanpoko zerbitzuak kontratatzerakoan, batez ere herritarrei zuzenean eman beharreko zerbitzuak administrazioetik kanpo kontratatzen badira, oinarrietan hizkuntza irizpideak jasoko dira. Hizkuntzaren erabilera, kasu horretan, administrazioari berari dagokion neurrikoa izan beharko dela bermatu beharko da.

VI. OHAR, ARGITALPEN ETA IHARDUERA PUBLIKOAK

20.art. Udalak eta bere menpeko erakunde eta entitateek egindako bandoak, ordenantzak, ebazpenak, oharrak, iragarpen publikoak edo edozein motatako publizitatea, hizkuntza bietan argitaratuko dira, eta euskara hutsez 13.artikuluari jasotako kasuetan.

Pasaiko Udala eta komunikabideen arteko harremanari dagokionean, aurreko artikuluan aipaturikoa betetzeaz gain, Udalak informazio horien berri bi hizkuntzetan eman dezaten eskatuko die komunikabideei.

21.art. Aldizkariak, txartelak eta orohar, Udalaren argitalpenak, hizkuntza bietan, euskarari lehentasuna emanez, ala euskaraz, 13.artikuluan jasotako kasuetan, idatziko dira.

22.art. Erabilera zabala duten oharrak, kartelak etabar, piktogramaz azal daitezkeenak eta komunikazioa ziurtatzen denean, euskaraz idatziko dira.

23.art. Irratiz zein megafoniaz buruturiko ahozko mezu, abisu, informazio, iragarki eta propaganda ofizialak, euskaraz (13.artikuluan jasotako kasuetan) edo eta elebitan egingo dira, bigarren kasu honetan euskarazko eta gaztelaniazko testuak txanda banatan emanez, euskarazko testuari lehentasuna emanez.

24.art. Pasaiko Udaleko kargu politikoek, normalki euskaraz hitzegingo dute Udalaren ekintza publikoetan beren kargua dela eta partehartzeen dutenean, ekintza motak, inguruneak, edo entzulegoak horrela eskatzen duenean edo hala zor zaionean.

VII. ERREGISTROAK

25.art. Udalaren bulegoetako Erregistro Administratiboetan, inskripzioak euskaraz egingo dira, zeinahi delarik ere aurkeztutako dokumentuan erabilitako hizkuntza.

26.art. Erregistrotik luzatutako ziurtapenak bi hizkuntzatan, euskarari lehentasuna emanez, idatziko dira, edo euskaraz, eskatzaileak horrela eskatuko balu.

VIII. PERTSONALAREN BIRZIKLAIA

27.art. 4. artikuluan aitortutako eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezzen beharrezko diren neurriak hartuko ditu Udalak. Hortaz, hiritarren zerbitzurako hizkuntza ezezik laneko hizkuntza ere izango da euskara Pasaiko Udalean, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

28.art. Udalak bere he1burutzat hartzen du Gizarte izaera eta izaera Orokorra duten zerbitzu eta Unitate Administratibo guztiak hizkuntza bietan lanean jartzea eta gainerako Zerbitzu eta Unitate Administratiboetan euskarazko zirkuito komunikatiboak sortzea.

29.art. Aurreko artikuluan markaturiko helburu hau lortzeak, aurretik, Udal Plenoak Udaleko lanpostuen hizkuntz eskakizunak onartzea eskatzen du, berauek indarrean egongo direlarik Ordenantza honen legezko onespina egiten denetik bost urtetako epea amaitu arte.

30.art. Lanpostu elebidunak okupatzen dituzten langileen artean, hots, Pasaiako erakundeari dagokion gutxienezko helburu mailakatuak zehazten dituen kate elebidun edo administrazio atal elebidunetan kokatuta dauden lanpostuen artean, berreuskalduntzeko lehentasuna honako hauek izango dute:

.Lortu behar duten hizkuntza eskakizunetik gertu daudenak

.Hizkuntza Eskakizun altuena izendatu zaienak.

31.art. Aurreko artikuluan aipatu helburua betetzeaz gain, Ordenantza honetan herritarrei aitortutako eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen, beharrezko neurriak hartuko ditu Udalak. Horretarako beste zenbait neurriren artean, ikastaro trinkoetara joateko baimena emango die Pasaiako Udalak, Administrazio atal bakoitzarekin adostasunean, beren eginbeharrak betetzeko behar dituzten euskarazko ezagupenak ez dauzkaten langile-funtzionario guztiei.

Euskara Zerbitzuak kontrolatu eta ebaluatuko ditu ikastaroen emaitzak.

32.art. Ildo berean, beren hizkuntza-gaitasun maila eskuratu ondoren, beren euskalduntze prozesua burutu nahi duten langileek, ikasketa prozesua jarraitzeko eskakizuna egiten dutenean, prozesu hori burutu arte egingo dituzten ikastaroen kostua Udalaren kontura joango da, Udala kostu hori finantziatzeko HAE/IVAPetik jasoko duen dirulaguntzaz baliatuko delarik.

33.art. Aipatu dekretuko laugarren helburua bost urtetan lor dadin, plangintza egokia prestatu eta hezurmamituko du Pasaiako Udalak, plangintza horretan zehaztuko direlarik enplegatu guztiak eta bakoitzak dagokien hizkuntz eskakizunera egokitzeko prozesuan bete beharko diren epeak, Udalak jarriko dituen bitartekoak, lehentasunak eta beste.

34.art. Ordenantza honen arabera, euskara, Pasaiako Udalean eta bere menpeko erakundeetan, zerbitzu hizkuntza ez ezik laneko hizkuntza ere izango denez, lanpostuei dagozkien hizkuntz eskakizunak jadanik betetzen dituzten enplegatuek, euskaraz ere burutuko dute beren lana, eta gainontzekoek, euskalduntze plangintzaren barruan, euskaldunduz doazen heinean, beren lana piskanaka piskanaka euskaraz burutzeari ekingo diote, dagozkien hizkuntza eskakizunak eskuratzean, erabat euskaraz ihardungo dutelarik eta beren euskarazko ihardunaren itzulpena beraiei ezin eskatu izango zaielarik. Itzulpenaren beharra duenaren esku dago itzultzailetza zerbitzuaz baliatzea.

Hala ere eta beti salbuespen bezala eta hala behar izanez gero *dokumentu laburrak* (halakotzat ulertuko dira gehienez ere orrialde bat izango duten dokumentu eta Batzorde Informatiboen aktak) itzultzea eskatu ahal izango zaio eta halaber *dokumentu urgenteak* (Administrazioaz kanpoko beharrek eskatuta epe laburrean beste Administrazio edo interesatu bati aurkeztu eta/edo jakinarazi behar direnak).

Bestalde, Udalaren Euskara Zerbitzua izango da, herritarren hizkuntz aukera librea bermatzeko, hala eskatzen dutenean, gaztelaniaz eman behar dena gazteleratuko duena, Itzultzailetza Zerbitzuaren bidez.

35.art. Beren udal-jarduna euskaraz burutzeko gai diren eta hala burutzen duten enplegatuen esku jarriko ditu Udalak beharrezko diren lexiko, hiztegi, terminologi zerrenda, aldizkari eta liburu espezializatu eta gainerako dokumentu, inprimaki eta ereduak.

Era berean, Euskara Zerbitzuaren aholkularitzaz ere baliatu ahal izango dira enplegatuek.

Euskara planean, aldian aldian sartuta ez dauden baina euskaraz lan egin nahi duten langileei ere laguntza eskainiko zaie ondoko eran: Donibaneko sailetakoko langileei itzultzaileak (bere lanaldiaren %15 eskainiko die zeregin hauei) eta San Pedro eta Trintxerpeko sailetakoei Udal Euskaltegiko irakasleak.

36.art. Pasaiako Udalean, lekualdaketaz, igoeraz, transferentziaz nahiz beste edozein bidez lanpostu berri batera heltzeko, ezinbesteko baldintza da lanpostuari dagozkion hizkuntz eskakizunak betetzea. Horretarako, Udaleko lanpostu guztien zerrendak berak jasoko ditu lanpostu bakoitzari dagozkion hizkuntz eskakizunak. Eta urteko aurrekontuek lanpostuen erlazioa jaso dezaten, urte horretan Udalean egingo den lanpostu-eskaintza epe barruan aurkeztuko da, Udalbatza plenoak onar dezan.

Honetarako, beharrezkoa da berauek epe barruan aurkeztea, aurrekontua dagokien urteko enplegu eskaintzan gehituak izan daitezen.

37.art. Pasaiako Udalak, era berean, Eusko Jaurlaritzatik, Diputazio Foraletik edo beste edozein Erakunde Gorenetik izendaturik edo eskainirik letorkeen pertsonal osoa ere (monitoreak, dinamizatzaileak, teknikariak, galdeketagileak, etabar) ordenantza honen arabera onartuko du, dagokion Erakundeari berau bete dezala eskatuz.

IX. PERTSONAL BERRIAREN HAUTESPENA

38.art. Era berean, Ordenantza honetan zehazten diren lanpostu elebidunetan lan egiteko. Pasaiako Udalak ezinbestekotzat joko du etorkizunean kontratatuko dituen langile-funtzionario guztiak beren iharduera euskaraz nahiz gaztelaniaz burutzeko gai izatea.

EUSKARA AURRE EREKISITO IZANGO DA
HIZKUNTZ ESKAKIZUNA DERRIGORREZKOA DUTEN LANPOSTUETAN.

39.art. Euskararen ezagupena aginduzkoa ez den gainerako plaza guztietan, euskararen ezagupena meritu bezala kontsideratuko da.

40.art. Pasaiako Udaleko lanpostuez funtzionario nahiz lan-erregimenpean jabetu ahal izateko derrigorrezkoa izango da lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna egiaztatzea hizkuntz eskakizun hori derrigorrezkoa den kasuetan. Beraz, probak gainditzen dituztenen artean lanpostuaren hizkuntz eskakizuna ere betetzen duen lehen izangaia jabetuko da lanpostuaz.

Probak gainditutakoen artean lanpostuaren hizkuntz eskakizuna betetzen duen izangairik ez balego, Udalak plaza hutsik utziko du berriro deialdia egitekotan.

Halare, herri langile izan aurretik prestakuntza-ikastaro zein praktikaldia edukiko duten lanpostuen kasuetan, Udalak badu beste aukera bat, 224/1989ko DEKRETUAREN 22. ataleko 2. eta 3. puntuetan jasotzen dena, alegia.

X. EUSKARAREN ERABILERA UDALERRIAN

41.art. Euskara Gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, orohar, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin, neurri egokiak hartuko ditu Udalak. Ildo horretan, hiru dira euskararen erabilera Pasaiako Udalerrian normalizatzeari dagokionez Udalak beregain hartzen dituen bitarteko nagusiak:

a) Zabalpen funtzionala: euskara gizarte-bizitzan gero eta presenteago egon dadin, planak bideratzea.

b) Zabalpen demografikoa: elebidunen kopurua handitzea eta hobeagotzea, euskara ez dakitenek ikasi dezaten bideak jarri, eta dakitenak alfabetatu daitezen bitarteko egokiak bideratu.

c) Zabalpen geografikoa: Euskara Pasaiako herriko auzo eta auzune guztietara zabaltzea.

Beraz, euskararen erabilera ziurtatu, bultzatu eta gizartearen erabilpen-esparru guztietan orokortzeko xedez, ahalegin berezia egingo du Pasaiako Udalak.

42.art.

1.- Pasaia Udalerriko bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala eta, orohar, toponimoak, Pasaiako Udalak finkatuko ditu bere eskumen-esparruan; hori bai, beti ere, euskal, erromantze edo gaztelani jatorria errespetatuz eta hizkuntza bakoitzaren grafia akademiko propioa erabiliz. Hori horrela delarik, Pasaia Udalerriko toponimoen bilketa eta jadanik bildutakoen berrikuspena egingo du Udalak, eginkizun horren ardura dagokion Erakundearen zuzendaritzapean eta Euskaltzaindiaren irizpideen arabera.

2.- Pasaiako kale guztien izen ofiziala euskara hutsezkoa izango da, herritarren artean aipamen bakarra ukan dezan.

Ondorioz, kale izenen plaka guztiak euskara hutsez ipiniko dira.

43.art.

1.- Herribideetako eta kalebideetako trafiko seinale eta iragarpenak honako eran arautuko dira:

-Euskaraz eta gaztelaniaz antzeko moduz idazten diren hitzak eta esaldiak euskara hutsez idatziko dira: TAXIAK, BUSAK, etabar.

-Erabilera zabala eta orokorra duten euskal hitzak eta esaldiak euskara hutsez idatziko dira: PASAIKO UDALA, KULTUR ETXEA,...

-Esaldiaren esanahi osoa piktograma bidez adieraz daitekeen kasu guztietan euskara hutsez idatziko da: EMAN BIDEA, APARKATZEA DEBEKATURIK,...

-Gainerako testuak euskara hutsez edo bi hizkuntzatan idatziko dira, bigarren kasu honetan euskarazko testuko letren tamaina gaztelaniazkoena baino bi aldiz handiagoa izango delarik (bai lodieraz, bai zabalera eta luzeraz) eta lekuz gaztelaniazkoa euskarazkoaren azpian ipiniko delarik.

-Euskarazko testuaren edukina Udaletxeko Euskara Zerbitzuak erabakiko du.

2.- Errepideetako obrak hasterakoan edo egiten ari diren bitartean, obraren egileak nahiz errepideen arduradunek jarri behar dituzten obra eta trafiko adierazpenak euskara hutsez edo elebitan agertuko dira, goragoko atalean aipatutako arauak jarraituz.

44.art. Pasaiako Udalerrian abiapuntua edo geralekua duten garraio publikoetako inprimaki, abisu eta adierazpenak euskaraz ala hizkuntza bietan, euskarari lehentasuna emanaz egin ditezen neurri eraginkorrak hartuko ditu Udalak.

Batez ere, pertsonalaren, errotulazioaren eta publizitatearen alorrean bereziki eraginez.

45.art. Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legearen 26 eta 27. artikuluetan xedatuaren arabera, euskara gizarte-esparru guztietan eta publizitatean erabili dadin eta, orohar, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin neurri egokiak hartzea dagokie botere publikoei. Hortaz, Pasaiako Udalak, aipatu xedearen harian eta bere iharduketa eremuan, honako neurriok hartu eta betearaziko ditu:

1.- Subentzioak emateko arauak.

Kultur, kirol eta aisi elkarteei subentzioak ematerakoan hizkuntzaren erizpidea ere kontutan hartuko da. Ondorioz, Pasaiako Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren ihardun subentzionaletan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte, propaganda ere, bai

ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabetu litezkeenak elebidunak bait dira.

Aurkeztaileen lanari dagokionez, honek aurreko ahapaldian zehaztutakoari hertsiki atxekirik izan beharko du, nahiz eta ikuskizuna gaztelaniaz izan; hau da, euskara hutsez ez den kasuetan euskaraz gaztelaniaz adina behintzat egingo da, euskarari erabateko lehentasuna emanez.

Subentzioak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da guzti hori, subentzio hartzaileek, subentzioa jasoko badute, derrigorrez bete beharko dutelarik.

2.- Propaganda idatzia euskaraz egiteagatikako dirulaguntza bereziak.

Herriko elkarte, talde eta erakundeek burutu ohi dituzten ekintzetarako plazaratzen duten idatzizko propagandan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntza bereziak eskainiko zaizkie, berauetan euskarari ematen dien tratamenduaren arabera izango direlarik.

3.- Ekintzak euskaraz burutzeagatikako dirulaguntza bereziak.

1. Ekintzaren aurkezpena eta ikuskizuna bera euskara hutsez denean dirulaguntza berezia eskainiko zaie.
- 2.
3. Ikuskizuna gaztelaniaz izanik ere, aurkezpena, laburpena eta azalpena euskara hutsez egiten badute ere, dirulaguntza eskainiko zaie.

3. Beste kasu guztietarako ez da dirulaguntzarik izango

46.art. Udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere aurreko puntuan aipaturiko baldintzak bete beharko dira.

47 .art. Pasaiako Udalak, euskara hizkuntza ofizial duten organismoei bidaltzen zaizkien idatziak eta ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta destinatarien berezitasunek eskatzen dutenean, euskaraz idatziko ditu.

48.art.

1.- Herriko festetako barraketako idatzi, iragarki eta txartelak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira ezagutzera, bigarren kasuan honako arauak bete beharko direlarik:

-Euskaraz ezaguera eta erabilera zabalekoak diren hitzak eta esaldiak euskara hutsez idatziko dira.

-Euskaraz eta gaztelaniaz berdintsu idazten diren hitzak eta esaldiak euskara hutsez idatziko dira.

-Gainerako testuak elebitan idatziko dira, beti ere euskarazko testuaren letren tamaina gaztelaniazkoena baino bi aldiz handiagoa izango delarik (bai lodieraz, luzeraz eta zabaleraz) eta gaztelaniazkoa euskarazkoaren azpian idatziko delarik.

Honetarako Udalak ferianteen esku idatzi, iragarki eta beren ihardueran erabili beharreko beste ezein idatziren ereduak jarriko ditu, eta Itzultzailetza Zerbitzua eskainiko die.

2.- Halaber, ozengailuetatik aireratu behar duten musikaren erdia bederen euskal musikari eta kantuei dagokiena izango da.

Beraz, barraken ezarpenerako adjudikazioak baimentzeko baldintzen artean hori ere azalduko da eta hala jakineraziko zaie barrakariei, fidantza itzuli aurretik baldintza hori bete den ala ez egiaztatu beharko delarik.

49.art. Udalak bere Udal Ordenantzetan subentzio-sistema bat jasoko du izaera ez ofizialeko elkarteak, merkatal, aisia eta kultur entitateak egindako publizitatea subentzionatzeko.

Halaber, dirukopuru bat eskainiko du Udalak erabakitako urteko kanpainaren helburuak estaltzeko.

Artikulu honetakoa betetzeko, dohain eskainiko ditu Udalak bere Euskara Zerbitzuaren itzulpen eta aholkularitza, eta horrela jakin eraziko zaie interesatuei.

50.art. Obra eta iharduera baimenen eskaera euskaraz egin eta ondorengo tramitazio osoa euskara hutsean egin dadin, eskaera euskaraz egiteagaitik, obra eta iharduera baimenengaitik ordaintzea dagokion tasaren %50a arteko subentzioa emango zaio 3.000 pezetatako mugapean.

Eskatzaileak, eskaera hori egiteaz gain, berak ere espedientearen tramitazioan berari dagokion guztian euskaraz ihardun beharko du, subentzio hori jasoko badu. Dirulaguntzarako aukera honek eraginkortasunik izan dezan, Udalarengana obra baimen eske joaten den guztiari artikulu honen eta 41.aren berri emango zaio.

51.art. Pasaian ematen den irakaskuntza ez unibertsitarian, euskarazko irakaskuntza orokortu dadin, saio berezia egingo du Udalak, batez ere matrikulazio epeak irekitzerakoan, euskarazko ereduak aukeratu duten haurrak, antolamendu arrazoiak direla medio, eredu horietan eskolatu gabe gera ez daitezten. Era berean, eskola mundua eta eskolumeen arteko giroa euskalduntzeko iharduera osagarriak ere bultzatuko ditu Udalak. Guzti hori ikastetxeekin elkarlanean burutuko da.

52.art. Irakaskuntza unibertsitariari dagokionez, euskarazko ildoak bultzatzeko, eta bereziki Pasaia herriko ikasleak unibertsitatean euskarazko ildoetan matrikulatu daitezten ahalegin berezia egingo du Udalak.

53.art. Hizkuntz normalizazioaren esparruan Udal honen xede nagusienetarikoa euskaraz hitzegiten dakitenen kopurua gehitzea eta hitzegiteko prest daudenak alfabetatzeaenez, Udalak, gure Udalerriko euskaltegiek buruturiko sentsibilizazio kanpainak lagunduko ditu.

54.art. Euskaraz dakitenak euskaraz bizi ahal izan daitezten bultzatzeko asmoz, saio bereziak egingo ditu Udalak, haur, gazte eta helduentzat kultur eta aisia ospakizun bereziak euskaraz antolatuz. Era berean, euskarazko kreatzioa indartu eta euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko xedez, herritarrek euskaraz idatzitako lanak argitaratzeko laguntzak

emango ditu, horretarako ipuin literaturaren inguruko eta hala nola bidezko erizten diren beste zenbait ekintza burutuko dituelarik.

55.art. Pasaiako Udalak, instituzioek egin behar duten euskara normaltzeko lana ezinbestekotzat jotzen badu ere, derrigorrezkotzat jotzen du, era berean, Udalerrian eta Euskal Herri osoan euskararen normalkuntzarako zer esana baduten pertsona eta erakundeekin harremanetan lan egitea. Euskara Pasaiako Udalean eta Udalerrian normaltzen bada, denon elkarlanaren fruitu besterik ezin bait daiteke izan.

Horrexegaitik, Udalak, pertsona eta erakunde hauen lana eta berea koordinatu asmoz, Euskararen Batzorde Informatibo zabal bat antolatuko du.

XI. EUSKARAREN MODERNIZAZIOA. BATASUNA ETA

NORMALKUNTZARAKO AZPIEGITURA.

56.art. Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako etorkizunean har daitezkeen neurri teknikoen zuzendaritza eta jarraipenaz Udaleko nahiz eskualdeko Euskara Zerbitzu Teknikoa arduratuko da, Udaleko Euskararen Batzorde Informatiboak esandakoa kontutan hartu ondoren eta jasotako erizpideen arauera, markatutako ildotik.

Udaleko Euskararen Batzorde Informatiboari eta Udaleko gainerako organo politikoei dagokie, beraz, Udalaren hizkuntz normalizaziorako erabakiak, proposatu eta eztabaidatu ondoren, onartzea. Hitz batez, Udalaren hizkuntz politika definitzea.

Euskara Zerbitzu Teknikoaren zeregina da aldiz, erabaki eta programa horiek hezurmamitu eta beroien zuzendaritzaz eta jarraipenaz arduratzea.

Era berean, Euskararen Batzorde Informatiboa, Pasaiako Udalerrian euskara normaltzeko lanetan diharduten pertsona, elkarte, erakunde eta gizarte-esparru ezberdinen eztabaidarako elkargunea izango da. Udalaren hizkuntz normalizaziorako ihardunaren ardatzak finkatu eta berrikusteko erizpideak emateaz arduratuko da.

Bestalde, Euskara Zerbitzu Teknikoa saiatuko da, era berean Euskararen Batzorde Informatiboko partaideak behar duten laguntza teknikoa eta azpiegiturezkoa ematen.

Pasaiako Euskararen Batzorde Informatiboak markatutako ildotik, Euskara Zerbitzu Teknikoa eta Udaleko nahiz eskualdeko Itzultzailetza Zerbitzua izango dira euskaraz egindako lanaren prestaketaz, idazkeraz eta gainbegiraketaz arduratuko direnak, hala nola pertsonaleko lankideei jatorrizko dokumentuak euskaraz idazten lagunduko dietenak.

57 .art. Pasaiako Udalak, Ordenantza honetan xedatzen dena bideratzeko, ezinbestekotzat jotzen du aurreko artikuluan aipatu azpiegituraz jabetzea, eta ildo horretan, bere buruari sei hilabetetako epea jartzen dio azpiegitura hori bideratzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Pasaiako Udalak sortu edota bultzatzen dituen programa guztietan hizkuntz erabileraren normalizazioaren ikuspegia kontutan hartu beharko da, eta Udaleko Euskara Zerbitzua izango da, beti ere Ordenantza honen ildotik, hizkuntz normalizaziozko ikuspegiaren presentzia berma dadin, Udaleko Zerbitzu eta Departamendu guztiak informatuko dituena. Guzti hori, erabakia dagokion Udal organoak hartzearen kalterik gabe.

Bigarrena. Udalak onartutako gainontzeko Ordenantza eta xedapenek, Ordenantza honetan jasotako xedapenak bereganatu egin beharko dituzte, beraiei dagokien guztian.

Hirugarrena. Udalak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Ordenantza honen emaitzen azterketa eta Ordenantzaren beraren berrikuspen orokorra egingo du indarrean sartu eta bost urtetara, euskararen normalizazioari buruzko legeria edo arautegi orokorraren nahiz egoera soziolinguistikoaren aldaketaren ondorioz edota bestelako edozein arrazoirengatik lehenago berrikustea egoki ez baderizkio.

XEDAPEN DEROGATZAILEA



Baliorik gabe geratzen dira Ordenantza honen maila berekoak edo txikiagoak izanik Ordenantza honetan xedatuarekin bat ez datozen edo kontrajarrita dauden erabaki guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako beharrezko diren xedapen eta programa berezi eta xehetuak erabaki eta bultzatuko dituzte Udaleko organo exekutiboek.

